

Kantua eta antzezpena loturik umorea jorratzen dute

Easoko Ederren probokazioa

Donostiako Orfeoiaren Kantu-Eskolak, Hika taldeak ekoizturik, eta Agurtzane Intxaurrega zuzendari dela, kantua eta antzerkia biltzen dituen ikuskizuna biribildu du. Hamar emakume eta bi gizonezko, errepertorio klasikoa alde batera utzita, aktore egin dira.

KANTARI profesional izan nahi dute gehienek. Opera, aria, *lied* eta antzekoak kantatzeko, 1993an Donostiako Orfeoiak antolaturiko kantu-eskolan hasi ziren bi urteko programa ikasten. Asmo horrekin, alor desberdinak jorratzen hasi ziren: abesteko teknikak, bokalizazioa, musikaren historia, hizkuntzak, antzeppen-teknikak eta abar.

Donostiako Orfeoiak duela zazpi urte sortu zuen eskola hau eta ikastaro-amaiera guztietan ikuskizunen bat antolatzeko eskatu izan du. Agurtzane Intxaurrega taldearen zuzendaria ikasle eta antzeppen teknikaren irakasle izan zen garaian hasi zen mamitzen orain plazaratu duten ekoizpen hau: «Eskolara ia neskak baino ez etortzea urteroko arazoa izaten denez, irakasle moduan, baiiek protagonista izango zituen kontzertu komiko korala

idazten hasi nintzen. Abo-tsa lantzearekin batera beste bainbat gauza ere ikastea -eszenatoki batean egoten jakitea, mugitzea...- kome-nigarri zela kontura zitez-en, bakoitzari esketx bat prestatu nion. Gero denen arteko lotura bilatu eta oi-narria egina zegoen».

Aukera artistikoa zabalduz

PARTEHARTZAILEAK kantariak, musikariak dira. «*Hasieran gauza serioak bakarrik abesten zituztelako, 'Easoko ederrak' beraiantzat ez zela egokia pentsatzen zuten, kabaret bateko ikuskizunetatik gertuago zegoela, baina kont-bentzitu egin nituen eta gaur egun oso pozik daude, aukera artistikoa zabaldu abal izan dute».*

Sorrera umila izanagatik, lanak badu istorio bat, musika ere izugarri landu da eta kantu nahiz antzeppen al-



Intxaurregak zuzendu du kontzertu komikoa. (Arg: R. Lizartza).

detik oso zaindua dago. Agurtzanearen hitzetan, «*ikusleak galdu samar daude hasieran, baina erantzuna ona izaten da, barre ugari egiten dute».*

Hamar kantu ezagun hartu eta bertsiok egin dituzte,

testuak aldatuz eta barregarri bihurtuz. Pianojolea, bederatzi kantari, gizonezko bakarlarria eta kontserjea, horiek dira partaideak.

Aktore eta kantarietako bat Gotzone Oiartzabal hondarribiarra da. Kanta-



■ Pianojolea, bederatzi kantari, gizonezko bakarlaría eta kontserjea dira partaídeak.

tzeko arazorik ez eta ozto-
poak antzezpenean aurkitu
ditu: «Akats ugari egiten hasi
ginen, niretzat zaila zen

*jendaurrean mugitzen ikasi
eta nire pertsonaiaz -etorki-
zunik gabeko gizakia- jabe-
tzea, baina zuzendariak*

*laguntza handia eman di-
gu geure buruarengan
konfiantza izateko».*

Donostiako Orfeoiko ki-
dea izanik, ohiko estilotik
urruntzen den ikuskizun
honen aurrean Orfeoian
zein erreakzio-mota eman
den galdetu diogu. «Oso
erantzun ona izan da;

*ikuskizun landu bat pres-
tatu dugunez gero, kantu-
eskolak zerbaitetarako balio
duela erakutsi dugula esan
digute eta zorionak eman
dizkigute lehen pentsaezina
zelako borrelako zerbait
egin abal izatea».*

RITXI LIZARTZA

■ **Hamar kantu ezagun hartu eta
bertsioak egin dituzte, testuak aldatuz eta
era berean barregarri bihurtuz**

**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

ANTZA
Maisuen Eskutik

**SOLUZIO
GRAFIKOAK**

Zirkuitu ibilbidea, 1 eta 2 ☎ 37 15 45 - Faxe 37 34 03 • Lasarte Oria 20.160